

Getxo >MEETING<



Getxo MEETING 01/17: **2019rako estrategia: Azal bat, plan bat, ezusteko bisita bat.**

Garrantzitsua eta premiazkoa ez den horri eskaini beharko genioke denbora gehien, Stephen Coveyk esango lukeen moduan. Egunerokotasunak garrantzitsua den hori jaten du oso estrategikoak ez diren betebeharr txikiekin oztopatzearen poderioz, eta jende gutxi hartzen du enpresa-estrategia apur bat zehazteko beharrezko denbora.

Baina urteko lehen Getxo MEETINGa gogor hasi genuen. Ez soilik Unai Rementeria ahaldun nagusia eta bere taldea bertaratu zirelako eta Getxo MEETING nahiz Getxoko ekintzailtzaren errealitatea ezagutzeko zenbait dinamikan parte hartu zutelako. Ariketa gako batekin hasi ginelako ere bai: “Zer lortzea gustatuko litzaizuke 2019ko abendurako?”

Egin genuen ariketaren izena “Azala” da: Etorkizunean kokatzean datza, 2019ko abenduan, eta irudimena martxan jartzean. Norbere enpresari buruzko albiste bat asmatzean (marratzu eta idaztean) datza, izenburuarekin, marraztutako argazkiarekin eta 2019an lortutako zerbaiti buruzko zure adierazpenekin.

Geroko ondorioen txandak agerian utzi zuen interesgarria dela helburu zehatzei buruz hausnartzea, euskarriren batean irudikatzea eta partekatzea. Badirudi horrela norberak bere helburuarekiko konpromisoa hartzen duela publikoki; nahia hitzez adieraziz gero, hori lortu nahi izatearen kontzientzia handiagoa hartzen da.

Urteko helburua ezarri ostean, mapa osatuko dugu. Horretarako, gako izango diren hiruna ekintza, aliantza eta bezero pentsatu behar ditugu. Hori guztia helburua lortzen lagunduko diguten ekintza txiki nahiz handien bidea zein izango den zehazteko. Hala, ekintza gako bat telefono dei soil bat izan daiteke, norbere planean aurrerapen handia ekar dezakeena.

Hona hemen saioan zehar landutako zenbait gako garrantzitsu:

- Pentsamenduak iragankorrak dira eta tokia okupatzen dute. Plan estrategikoa euskarri fisiko batean irudikatu behar da, eta boligrafoz idatzitako orri batean kabitzen da.
- Beharrezkoa da benetan interesgarria eta garrantzitsua iruditzen zaigun horretan arreta jartzen lagunduko digun gida bat izatea.
- Erabilgarritasuna: Erabaki hobeak hartuko ditugu hala, eta kontziente izango gara zergatik esaten diegun ezetz proposamen batzuei eta baietz beste batzuei.

Hurrengo saioan, urtarrilaren 31n, plan komertzialean jarriko dugu arreta; hala, ezberdintasun handia sor dezaketen gaiak lantzen jarraituko dugu, premiazkoa ez baina oso garrantzitsua den lan mota hori egiten. Bestela “beti gerorako” uzten den lana, hain zuzen.

Izan ere, Getxo MEETINGen lan egiten dugu zure negozioan benetan behar duzun hori izan dezazun. Hurrengo saiora etorri nahi? -----

Getxo MEETING bi ostegunik behin egiten da 14:30etik 16:30era. Saio dinamizatuak dira, non aholkuak partekatu eta zure enpresarentzat interesgarriak izan daitezkeen kontaktuak egin ditzakezun. Bazkaldu gabe etor zaitezke, beti dagoelako mokadutxoren bat jateko aukera. Doakoa da, eta izena eman beharra dago aldezturik, hona hemen horretarako bideak: 944 660 140 eta getxopro@getxo.eus